

# Zaraitzuera aztertzeko ekarpen berriak (5 - Otsagi: ahozko testuak)

KOLDO ARTOLA\*

Honen aurreko ekarpenean Otsagin bildu materialetatik ateratako aditz laguntzaileak sailkatu eta zein bere lekuau agerian ezarri ondoren, oraingo honetan hain aspaldikoa ez den bizimodu baten lekukotasuna agerian ezartzen duten ahozko testu batzuk ekarri nahi izan ditugu orri hauetara haien gehigarri gisa, horietan islatzen baita ongien, gure irudiko, hizkera baten espresabide sakon bezain bereziak, tokian tokiko hitzunen jite eta izakera bera azaltzeaz gainera. Entrega hau ahozko testuei soilki eskaini izatea al-dizkari honetako sortzaile eta kudeatzaile Jose Mari Satrustegi adiskide mai-te-maitea zenak (G. B.) norabide honetako aholkua eman izanari zor zaio, Otsagiko datuak argitara emateko gure asmoen berri eman genionean. Izan ere, haren ustez, era honetako mintzamoldearen zein beste edozeinen leku-kotasunak euskal filologia ikasten ari den gazte jendearen esku jartzea biziki interesgarria baitzen, hauek zer ikertu gero eta ugariagoa izan dezaten. Hona, bada, eta besterik gabe, Otsagin bilduriko testuak:

## TRANSKRIPZIOARI BURUZKO OHARRAK

Ahozko testu hauek 1975-98 urteetan grabatu zinta batzuetatik aterata daude, erdarazko zati batzuk ere hor, noiznahi, tartekaturik agertzen direla euskarazkoen gehigarri eta argigarri. Testuok transkribatzeko orduan, hainbat bokalen irekiera dela eta, aldi askotan halako biren arteko soinua aditzen dela iruditu zaigunean, honela jokatu dugu: *a* eta *e*-ren artekoa dela iritzirik, *ä*

\* Donostiako ARANZADI Zientzia Elkarteko Etnografi Sailekoa

Esker biziak eman nahi dizkiot, gehien bat arazo gramatikalak direla-eta, lagunza eskaini didan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziatua.

idatzi dugu; *e* eta *i*-ren artekoa dela iritzirik, *ë*; eta *o* eta *u*-ren artekoa dela iritzirik, *ö*. Horretaz gainera, inoiz edo behin, *i* eta *u*-ren arteko soinua aditu uste izan dugunean, zertzelada hau *ü* baten bidez islatu dugu.

Zenbait aldiz erdal hitz batzuen grafia –‘a ver’, ‘con que’, ‘más que’..., esaterako–, hitzok edo aski bakarturik edota euskarazko testuinguru baten barruan hertsiki kokaturik daudela ikusi dugunean, bestelako grafiaz idatzi ditugu, *aber, konke, maske...* euskal itxurako hitzak bihurtuz.

Hizkiren bat erdizka baizik edo ia batere aditzen ez dela iruditu zaigunean, parentesi batez inguraturik idatzi dugu: *il(l)abete, denbo(r)a, tx(i)osko, (t)xiten, (t)zomait, Fran(t)ziara, erraten (t)zela...*

Erraz da, batzuetan, *ior/iyor* edota *geago/geyago* bikoteen artean bereiztea; ez hain erraz, ordea –ez beti, behintzat– *baia/baya* edota *geiago/geyago* gisa-koen artean. Irakurleak batzuk eta besteak aukituko ditu, hona ekartzerakoan izan dugun pertzepzioaren arabera idatzita, ezin berma dezakegula, ezta urrik eman ere, beti asmatu izana.

Errotazismoaz jadanik esan dugunaz gainera –mintzamolde honetan *-rz-* taldea *-st-* delakoari nabarmen nagusitzen zaio, orain arteko saioetan aldaera mordoxka agertu den arren–, batzuetan *r* eta *s*-ren arteko zerbait ere –bien arteko nahasmen bat edo– gauzatzen dela iruditu zaigu: *laur(s), makur(s), r(s)ato...*, Aezkoako eta Erronkariko ibarretan ere, azken honetan bereziki, antzeko ahoskapen nahasiak aditu ditugula.

Azentu-markak idaztean hiztunak esaldiari ematen dion intonazioa islatu nahi izan dugu, beti ere halakoa asmatzea hain erraz ez izan arren. Horrela egitean intonazio horri buruzko ahalik ideiarik hurbilena eman nahi izan dugu, ziurtasun osoz ematea ezinezkoa bada ere, zeren, behin baino gehiagotan, esaldi bat bera behin-berriro entzun eta, batetik bestera intonazio desberdinxea edo –zalantzazkoa azken batean– somatzen ote den susmoa izan baitugu maiz.

Hona, beraz eta besterik gabe, gure informatzaileei egin grabazioetatik aukeraturiko pasarte interesgarri eta, batzuetan, baita aberatsak ere:

LIBORIA CONTIN eta ISIDORA PASKUALENA (karrikan bildua, 1975)

#### Aezkoako Juanes Idiartekoaren ixtorioak<sup>1</sup>

- LC: Aézköako... Órbaraköék, zeruálarra eltzéko, eserí zién... kónporta<sup>2</sup> (...) báta bérztian gáñan, gáñan...

- IP: Pues... [batek esan omen zuen:] bátengatík ez gitzú... èltzén... zéruala.

- LC: Zién... zér bát... gízon bát, ta Jangóiköa... baia txú erdáraz gúk ikási gintzának...

<sup>1</sup> Federiko Garralda otsagiarrak, 1917an, ‘Satorrak’ izenburuko ipuin hauxe argitara eman zuen. *Joanis Iriarteko* –honela idatzi baitzuen hark– edo Idiarteko honen sonak, hartara, handia behar zuen, berau orbartarra izan arren ipuina gutxienez Otsagiraino zabaldurik aurkitu dugula kontuan izanik. Haatik, eta zoritzarrez, ipuinaren zati txiki bat baizik ezin eman dezakegu argitara, bera bilduta zegoen zintaren zatia, akats bat tarteko, ezabaturik geratu zaigulako, hona dakargun zatitxoa lehendik presaturik geneukan zirriborro baten existentziari esker ‘errekuperatu’ ahal izan dugula.

<sup>2</sup> Azkueren hiztegian zera dugu: **konporta**: (BN-s), ‘barril para lejía : cuvier, cuve à lessive’.

- IP: Idúritzen báitzitzaién... Jaungóikök bezáin bát bázakiéla. Infórme elkítze béti... infórme, eskètzen zién<sup>3</sup> Juánnos Idiártekori (...) ta Juánix Idiártekorí pues, eské zien infórme (...). Eta Juáñes Idiártekorí errán zakoién pues yá nól... igànen zréntz zéruala, eta... géndu zién... barrenékoa<sup>4</sup> eta... burrún-burrún-burrún-burrún... [guztiak erori omen ziren].

### Animaliez eta basapiztiez oro har

- *Nolako animaliak dira kemen?*

LC: Azkóna, astúa, txerría, ardía, zezéna... ártza, záldia; gúk erràten dugu yagó zamária, baia záldia<sup>5</sup>; beorrera, óllua, ollárra, béia, axária. Ta géro ainbértze bítxo badá, mendian (...) eziá? pitotza<sup>6</sup> ere báda... lìbröan ikusi dutník, baia ník... étxen ere ikusi duté, gatúa beño dá... itsúsiago.

IP: Básagatu...

LC: Gato montés ere dá gáuza bat eta pítotzá da bérze bat; dá gátuan idúri baia itsúsiago gátua beño, e? gáto montés dá majó...

IP: Erràten dié... [pitotzak] zernáiden... óollo...-tégiétrá ta sártzen drelá zéinaiadén xílotarík eta... a lo mejor sartú eta... déna, óolloak... odóla.

LC: Odóla... edáten dabé.

IP: (izenekin jarraiki:) Áriak, txória, tzakurrá, áuntza, akérra; el 'masto', pues akérra.

LC: Eta géro... erróiak, eta agíla eta... dénak erran zú, eziá?

- eta 'águila'ri, nola erraten dakozie?

LC: Pues agíla<sup>7</sup> erran dugu gúk, béti; otsúa, buítre, erróia 'kuérboa', mendian azirén da, baia éz... ník mendian izáundu tának drá... konéjöa, érbia, erróia, agíla, ártza, ótsöa, axária eta ... zér dra yagó? basúrdia. Báda, ánitz márta ere bazén, márta<sup>8</sup> eta fuína<sup>9</sup>. Pues... mártará bádakizú zér dén? korí...

<sup>3</sup> 'Nor-nork' gisako adizki bipertsonala dugu kasu honetan eta jarraiko beste batean, testuinguruak 'nor-nori-nork' saileko tripertsonal bat –'zakoen', alegia– eskatzen zuenean, hurrengo esaldian, jada, eman bezala.

<sup>4</sup> Hots, zerura iristeko *konporta* bat falta omen zutenez, gure pertsonaiak *barrenekoa* –behekoa, alegia– kendu eta gain-gainean paratzeko esan omen zien.

<sup>5</sup> Haatik bi izenok emaniko Garaioa herrian, adibidez, bien arteko zehaztasunik eskatzean argitu dira zalantzak. Dionisio Jamar mintzo, 1988an: *záldia dá... biòrrak... aztéko; záldia. Zamarid? zámaridak lának eitéko*. Desberdintasun hauxe egokiro azaldu zion orobat Mari Cruz Esarte eaurtarrak Aitor Aranaren 2001. urtean, honen 'Eta zer diferentzia dago zamariaren eta zaldiaren artean?' gisako galderari, hark *Zaldia? Kori xu beorrrendako. Eta zamaria lán egiteko, osatrik gisako erantzuna emanez* (A. Arana: *Zaraitzuko uskara*, 117 or.).

<sup>6</sup> Iribarrenek honela dio: "PITOTXA. Nombre vasco del turón, hurón bravo; denominado científicamente 'mustela putorius Lin'. [Echalar, Isaba]. En Zubietza, *pototxa*. En Baztán, *putotxa*. En Aézcoa, Arce, *futotxa*. ('Navarra. Guía ecológica y paisajística)'). Mitxelenak prestatu *Un vocabulario...* izenburuko lanean ere 'pitoch' agertzen da Zaraitzurako eta 'futoch' Aezkoarako –Erronkarirako ez zen bildu–, 'putois' [= gatz. 'turón'] esanahiaz. Honez gainera eta aurrekoen iritziekin bat datorrela, Aitor Aranaren hitzegian 'ipurtats' dakusagu *pitotx* horrexen sinonimotzat. Azkueren hiztegiko lekukotasuna ez dakargu hona oraingoan, egokia ez delakoan.

<sup>7</sup> Ez dugu, zaraitzueraz, hegazi hori izendatzeko berezko euskal izenik ezagutzen: arestian aiaptu *Un vocabulario...*-n, adibidez, 'agíla' agertzen da –Aezkoarako era Erronkarirako bezala– eta guk ere izen horixe besterik ez dugu bildu Ezkaroren eta Espartzan.

<sup>8</sup> *Un vocabulario...* delakoan 'martta' agertzen da, lanak barnehartzen dituen hiru ibarretarako.

<sup>9</sup> *Un vocabulario...*-n 'fuina' dakusagu Zaraitzurako eta Erronkarirako [gazt. bezala; fr. 'fouine'], baina Aezkoarako 'fuña', hau bitxi egiten zaigula ibar honetan gazt. 'peña'rako, adibidez, *peina* aditu dugula kontuan harturik. Iribarrenek, baina, zera dio: "Zorro pequeño, zorrete. [San Martín de Unx]". Azkueren hitzegian hitz hau ez da agertzen baina Aranarenean bai, honek, gure ustez arrazoi handiz, basapizti hau 'lepasuri' dela dioela [= *martes foina*, gazt. 'garduña']. Animalia ttiki hauen izenekiko zalantzak maiz agertzen dira, zoritzarrez, ikerle desberdinaren artean.

izan dá... ardíllara bádakizú zer dén? pues ardíllara beño yó... géxago dá, martá eta... fuínara dá berdín baia, ayék dié biék, badié béren... diferenzia-  
ra; mártará dá guziá... kolór(s), áte órren gísa, eztíá? ta fuína dá, berdín, baia  
dú áu, pápöa erráten dá, papúa, óri, xúri beño yágó óri, óri *óro*<sup>10</sup> bat.

IP: Ta... búztana dú lúzexká ta... bílozik.

LC: Ba, órrek dú... dénbraz zuén inpórtanziará fuinák eta mártak; bálio  
(t)zién díru anítz, ánitz! baia orái eztá, orái eztá arrepátzen, eztákit, kemen xá  
ez. Orái eztákit bádenéz, edo bukátu zén arráza.

- *eta 'ardilla', nola erraten da?*

LC: Ardilla<sup>11</sup> ikási dutní! óri dá txípi, mártta ta kóyen beño txípiago, baia  
bízi, e? bízí! txatándrëa<sup>12</sup> bazén ber(t)ze bát, orí... ere dá, nóna... diferente  
ézik a... àrratuári<sup>13</sup> diferente (...) nóna erran dút? órrek, orí... gátuen gísa  
arrépatzén tu ságuak eta...

IP: Párete... zílo...

- *eta 'tordo', nola erraten duzie?*

LC: Tordo? ttórdua<sup>14</sup>; malbízar'eré... ník éztakót eré bér(t)zerík ikási...

- *biligarroa? birigarroa ote?*

LC: ... billígarroá.

- *eta 'ruiseñor'?*

IP: Ruiseñor? nik, aurtén e, erráten nuén... barrídean, aúrten, eztuélá  
ruiseñorák<sup>15</sup> kantatú fan dén urtéz bezéla (sic); kemen... kantátzen... zixún,  
kemen baték eta bérze baték goiziáldetik, baia ruiséñorák kantátzen dizú...  
anítz ongi, e? (...) kóitarik dá ánitz gúti emén... béd(r)atsián.

- *eta 'jilguero'?*

LC: Bai, báda bái, baia eztúgu izáutu<sup>16</sup>; ikústen dugu ánitz, nik, báda, báz-  
pur égun ikústen dutála, kemen, txóri bátzuk, ándi, eta... bílöa dié... xúri  
etá, béltx etá, ártekotán badú: ázul edo, bérde edo eztáki'zé, oyé(k) eztáki'zer  
drén, nóna dién izéna.

- *eta zer berze dago kor, bazterretan edo ugaldean?*

LC: Súgea; 'trucha' arráya, ta txípa<sup>17</sup>...

- *eta 'anguila'?*

<sup>10</sup> Urre gisako horia esan ohi zaiona, alegría.

<sup>11</sup> *Un vocabulario...* delakoan 'burchinch' agertzen da animalia ttiki hori izendatzeko Zaraitzun  
zein Aezkoan ere. Azkuek, ordea, hitz honi oso bestelako esanahia ematen dio: *Burtxintx* (BN-s), ála-  
mo temblón: *tremble, genre de peuplier*. Lan hartan, edozein kasutan, ez dugu arbola honekiko errefe-  
rentziarik ikusten.

<sup>12</sup> *Un vocabulario...* berean ere, zaraitzueraz eta erronkarieraz, 'xatandré'. Azkuek, baina, azken  
ibar honetakotzat bakarrik jotzen du hitza: *Xatandre* (R-uzt), comadreja, *belette*. = De SAGU, ratón,  
*souris* + ANDERE, señora, *dame*.

<sup>13</sup> Ezkarozan eta Espartzan ere 'arratu' bildu dugu -gazt. 'rata'-, baina Eaurtan 'arratio', *Un vocabulario...* -n ageri bezala.

<sup>14</sup> *Un vocabulario...* -ren arabera, 'xoxo' dugu aezkeraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz, eta guk geuk  
ere *xoxúa* 'el tordo' bildu genuen aspaldi, Ezkarozan, Gregorio Mikeleiz andrearen ahotik.

<sup>15</sup> Inguru hauetan ez bide zuten ezagutzen txori honen euskarazko izena, *Un vocabulario...* -n 'ruiseñor'  
baizik ez baita agertzen Aezkoa-Erronkari bitarteko eremu osoan.

<sup>16</sup> Honetarako, berriz, 'kardelin(a)' dugu hiru ibar hauetan *Un vocabulario...* -ren arabera; fran-  
tsesez 'chardonneret'.

<sup>17</sup> Ibaiko arrain ttikia da txipa, leku askotan 'ezkailu' izenez ezagutua [= *phosinus phosinus*]. *Un vocabulario...* delakoan ere 'chipa' agertzen da Aezkoa-Erronkari bitarteko eremurako, frantseseko *ablette, able* izenei erantzuna emanetza.

LC: Angila<sup>18</sup>. Emén éztuzu bàizik ère arrái; ugálde koetán, úr koetán, báda, baia kán, bésté á(u)ndietán, ánitz; Úrbeltxa eta Úrtxurián ánitz.

LIBORIA CONTIN (*Etxeberri* bere etxean, 1975-76)

### Illea [= ‘artilea’] iruten

Pues óri, len... egiten gínuen ária, íliaz... zúk izàundú sua kóri? ez? gúk ardian íleaz egiten gínuen ária... déna, kañámöa<sup>19</sup>, ta estópa, eta... líbö<sup>20</sup>, zén bérze bát baia, óyek zréni áriak, arròpa xuriändako, ta méndiko... mandría<sup>21</sup> erràten gínuén gúk, méndiko... agótzan eta belárran ta ermatéko, manta, mánandrëa, ta óyek egiten zren... káñamöaz ta íztupa; bi, bí ári, bí... kláse, ta biez egiten zién... télara<sup>22</sup>.

Eta géro, íliaz, egiten zén, o... arròpa ánitz, né dènbra gaztian? ánnitz! gáltzak<sup>23</sup> ere bái, gizonendáko, emaztendáko, denendáko; eta... erràten gínuén arròpandáko, kóttal!, bai, zintu(r)áistik apál, kóttal<sup>24</sup>; órti góiti pues eíten gínuén, bah! txakéta, óri erdáran (...) igúal baia, txakéta, báya dénak egiten z(r)én ardian íliaz, ánnitz! ániz.

Géro... esertzen zén –artzáiaik eta... beyén guardatzra faten gintzánek eta– abárka; óri izàundu zú? Sán Sebastianén? gúk ánitz érman dugu, e? baia órai (...) ta émen éztakít baia, gúk ermàten gínuen, oyala erràten gínuen, oyala<sup>25</sup>, egiten zen ílëaz, eta ála ermàten gínuén ta ingúrun... ingúratzen gínuén zangúa, góiti ártio; géro abárka, ta géro, oráño, ária, egínik berríz, lódiago, ífur edo láur edo bórz árikekín íletik, bérrez, buélta, lótzen gínuen; órai eztúgu egiten... déus e.

Ta... ála egitéeko erràten zén erróka<sup>26</sup>, erróka... pálo bátian, makíla bátian; makíla erràten dúzie? gúk ére makíla, uskáran, makíla<sup>27</sup>; ta géro, bérze... makíla bát txípiagó, apál lodí, góiti mé: ardátza<sup>28</sup>; oyék zréni iléan árian egitéko, ta káñamöan ta denéndako; orái eztá... óitaridéus ere, orái ézta.

<sup>18</sup> Un vocabulario...-n ‘aingila’ dugu aezkeraz, ‘angila’ zaraitzueraz, eta ‘aingra’ erronkarieraz.

<sup>19</sup> 2000. urtean Columba Samper eta María Cruz Esarte eaurtarrek, biek, ‘kalamu’ eman ziguten.

<sup>20</sup> ‘ligu’ izan daiteke hori, Otsagin berean eta Espartzan bildurik gauden hitza, gatz. ‘lino’.

<sup>21</sup> Azkue: *Mandre* (BN-s), sábana, *drap de lit*. Var. de MAINDIRE, etc.

<sup>22</sup> Aurreneko pasarte honetan –oroitarazi nahi dugu– honako hitzak ditugu: *ardian, xuriändako, agotzaren eta belarran, hots, ‘ardiaren’, ‘xuriarendako’, ‘agotzaren’ eta ‘belarraren’*, hurrenez hurren.

<sup>23</sup> Azkue: *Galtza*: 2º (BN, G, L, Sc), medias, *bas*.

<sup>24</sup> Azkue: *Kotta* (BN-s, R, S), pequeña saya interior, *cotillon*. Uztarrozen ‘kota’ eta ‘kotaxuriak’ moduko hitzak [= ‘gona’ eta ‘gonazpikoak’, hurrenez hurren –azken hau gatz. ‘las enaguas’] bildu genituen duela hogei urte inguru.

<sup>25</sup> Azkue: *Oihal* (BN, L, S): 1º paño, *drap*. (...) En otros (pueblos) de BN y S extienden su significación a todo tejido, sea de lana, de cáñamo o de lino. (...) *Dans d’autres (localités) de BN eta S, on étend sa signification à un tissu quelconque, qu'il soit de laine, de chanvre ou de lin.*

<sup>26</sup> Azkue: *Erroka* (AN-arak-elk, BN-s), rueca, *quenouille*. (?). Galdera-ikurrak Azkuerenak berarenak dira. Ezkarozko Sinforiana Narbaezek, ‘estoparendako’ zela argituz; harirako, berriz, ‘murkilla’: *eta érdaráz... bueno, kén erdáraz eré murkilla, pero es... rueca; castellano, rueca, gaineratu baitzuen Sinforianak*.

<sup>27</sup> *Makila* honi esaten zaio, hain zuzen, ‘murkilla’ edo ‘burkila’. Hona Azkueren adierazpenak: *Murkila, murkilla* (BN-s, L, Van Eys, R), *Burkila* (BN-s, R), rueca para hilar la lana, *quenouille à filer la laine*. Ezkarozko Sinforiana Narbaezzen arabera, baina, arrestian ikusi dugunez, ‘murkilla’ haria iruteko erabiltzen da edo zen. Hitz hau dela eta, Erronkari ibarrean ‘burkilla’ aditu genuen aspaldi ibarriari izena ematen dion herrian eta ‘burkulla’ Uztarrozen eta Garden.

<sup>28</sup> Azkue: *Ardatz*: 3º (c), huso, *fuseau*. Eta Zoilo Mosoren materialetan ere berdin: ‘huso de hilar, Ardatza’.

## Larrañe aldera, ile saltzen

- *Ori [= 'usted', alegría], noraino<sup>29</sup> fan izan da?*

- Orírik; méndián... baitá... góra, goití; dá Óri. Baia báda karretéra, bá-dakizú? izan zía ortík? ordúan bádakizú ník bezála... Ta zér nai zunén xakín?

- *ea noraino fan den...*

- Larrañéra Frán(t)ziara; lén erría dá Larráñe, uskáran, ta, erdarán, La-rráun... kóri. Ník kóri, bádu úrte, úrte ikásirik; ník nuénean emezórtzi, ógei, ogèitabí urté, faten nítzan mándoréki(n) –mándo, bádakizu– ardián iliaré-kin... ardián íliarekin. Emén, ordúan<sup>30</sup>, etzén ermatén ap[al], zén... àrdi ánitz, kémen, ánitz árdi! Ta, ílea... ébakí, motx, erràten zén, ébakí ta... bil-tzén zien, xitén zen Larrañérik gizón bat; ta káyek ermatén zien ília, káyek egitén zien bérek... pàsa...-pòrtia, eztáki'nola. Pasátzen zién mändöá... bòrz pézta, e? bòrz pézta, mändozáyárekin, aitzén?

Nik, bádakizu... zómat ırabazten nuén? eún kartán mandúak zuén bòrz pézta, eta ník? berrògeit'ámar zéntimo, nola erraen dút? borz... tzakùrrandí<sup>31</sup>... (zuzenduz-edo:) ez gínuen erratén gúk ordúan tzakurrá, andí ta ez txí-pia, erràten ginuén zórtziköa eta bórzeköa. Baia orái eztúgu erratén batré... t'án emàten záukien... t'án emàten záukien zúkua, saldára! ta... etxérik ermàten génuen... ogía, ta... tortilla bát, e? bòrz óron fatéko, bòrz orón xi-téko; ta dénbra ónik zénean... dénbra ziénian gáxto!... etzén ón, baia biárr igare... biárr igare bidéa, beár pasátu... bídëa, bòrtuak...

## Almadiez zerbaït

- *Orren gaztezutuan, almadiak ikusi ditu?*

- Baáaa!, bái-bai-bai-bai, auntsá<sup>32</sup>...! eta anítz! Ène senárrak almadían etzuén lan égin, baia barrankeátzen<sup>33</sup>... egúrra eta zúra, da? e? aítzen zú? báia àlmadíak, èraunstén zien<sup>34</sup>... úrez, gízonek. Géro kémen lotzén zien, álma-día... lot, sós<sup>35</sup> edo nola erránen dáuzut? zúrak! èraunsten zién bakárren, ba-kárren, bakár<sup>36</sup>, úra gañean.

Ta... èrran baitúgu... zúbi... rómanöá, kandíbeño arratsá-, (zuzenduz:) àpalxágo, elkítzen zién... zúra, ta géro kán sostén zien, ník eztákit nola errán kóri. Zúbi kórren péan egiten zuén kaská...-jéro bát, ùgaldéák májo, baia

<sup>29</sup> ‘norartio’ idatzi behar izango genukeen, agian, ohiko joerarekin adostuago, baina ez dugu, mintzamolde honetara hurbiltzeko geure ahaleginean, neurritik pasa nahi izan.

<sup>30</sup> Bi silabatan eman zuen Liboriak hitz hau: *or-duán*.

<sup>31</sup> Gatzelerazko ‘ochena’, alegría. Hona Iribarrenek hitz honetaz dioena: “OCHEMA. Nombre que dan a las monedas de 10 céntimos. Las llaman así porque equivalen a 8 maravedís. (De uso general)”. Geroxeago ageriko den ‘borzeka’, beraz, ‘tzakurtxip’ izatean, bost xentimoko txanpona izango zela uste dugu.

<sup>32</sup> Auntsa honetan, behar bada, ‘ontsa’ hitzaren aldaera diptongatua egon liteke, Sebastian Ese-berrik behin emaniko *nauskiro* hitzean dagoen moduan. Liboria andreak, inoiz, Atharratzen bizi zi-tzaion alaba baten etxearen zenbait egonaldi egin zuenez, zera honek haren hitz egiteko eran zuberera-en eragin xumeren bat ekarri ote zion iruditu zaigu inoiz edo behin.

<sup>33</sup> Iribarren: BARRANQUEAR. *O barranquiar*: Conducir la madera por el río, valiéndose de pi-cas. [Aoi, Aézcoa, Salazar].

<sup>34</sup> zien behar luke honek, pluralean; era honetako koherentzi ezak maiz ageriko dira testu haue-tan zehar, beti aipatuko ez baditugu ere.

<sup>35</sup> ‘jos(i)’, alegría.

<sup>36</sup> Azkue: Bakarrean (AN, B, G), a solas: *seul, tout seul*. Zentzuagatik, baina, Azkuek berak daka-rrren Bakarka hitza gure kasuari hobeki doitzen zaiola uste dugu: (BN-s, Lc), *uno a uno, un par un*.

órai txíkindu dié, úgaldiá, bére gixáz; baia kán lotzén zin (...) zúra, sós. Ta geró kán pues, úran... espéra egòten zín, úra... sáunts zadién, négurriála, arrànkatzéko; éuri ta élur ta egitén tzuen, ánitz... eta géro álmadiára, bëar zién, úra esértzen zénian nèurrián, egótz ugaldiála!

Geró, këmendík, xìten tzén, èrran baítut, San Martinéko zubiála, kango urárekin ta gero káu xiten bétzen bérrez, kán faten zién óngi, ánitz óngi, kán xuntàtzen zién úra[k], ánitz! ta... kán, ník erránen dút, èztiá? nola erratén da?... Íso artzén diénéan... Irúñalà, apálxagórik fatén da, úra faten déna gísa, Arbayún!... pues kán sàrtzen zrén, álmadiák, ta... áurrak eta faten zián, ooh! y Ezkározera, t'ayé'ikústéagatik nola faten zén (...).

- *eta aurruk, ez ziren igaten gaineala?*

- Ez, nékez... nékez... bàia gútti. Baiá pues, aurrék bëti... bádakizu; órai éz ainbésté... órduan... éskola dénbran... zrén, almadiák ere úr anitz zénéan, óraiko aurrék eztie ikústen koyék, ez! eztákit... kórtan yágó.

- *eta almadiara trabatzen baldin bazen kantal baten kontra edo, gizonek zer egin bear zien?*

- Àlmadian gáñan?... áu dá... rémara, àlmadian, eztia? ta áu dagó kortík sósirik... zùrári, ta klá! këmendik faten dá gizóna almadián gañetík, rématuz, au dá?... ta, èrmatén zien, erratén zien astúa<sup>37</sup> ermàten tziéla, àlmadian, ta kálaxé... almadián gañeán sósirik, pues... égurra, égur batzurékin edo ábar batzurékin edo sósirik, ta kúra zién ástöa...

- 'roperoa'...

- Bai, bai... èrmatekó, álförján, ta etziénian bearrík espaldérök, lárruak, e? eta yá, ník uste dút, eztákit Irúnberrín, eztút usté elkítzen zéla almediára (sic) ugaldétik; Arbayún sàrtzen zén, ta ník, ya, yagoík enuén ikústen, e? bàia... xátekó, biár zien barátu nik úste, áyek xatekó...

- *eta ez zien xaten almadiaren gainean? migak eta...*

- Mígak ez, etzén egíten, almadián gañeán ez, etzókeyén egín, éz-ez-ez. Apál, nik eztákit emén, nòra zuén<sup>38</sup> úra ugáldiak, baia kémen ez... kémen, àlförjára erràten dígu óra'e, erratén die pues... nola erráten dié orái? órai eré erràten dadáë baiá, zakúa, pues... álde batéala... sàrtzen da, gáuza batzük, eta bëste aldéalá, bëste batzük eta, erdíitik kólga, juxtú(b)an, an, eztá? almádian.

- *eta almadiak xotzen baldin bazuen zerbaiten kontra?*

- Ba... ematén zien ugaldéári... almádiátzen zen denbrán, pasadá bat, úrek eta bíltzen bétie àrri àndi zómait, ta... pelígro ítzen... (zuzenduz:) izàten zén lékuetán pues, gárbitzen zién, lenxágo.

- *eta orduan ez zen trabatzen...*

- Éz kanbésté; bàia yá lekuák bázren... púzka batzük, értsiágo, e? bëste batzük àrrontágo édo, zàbalágo, erràten dugun gísa; eta kán... a lo mejor rèlebatzén zren, gizónak, kanbián, eztia? baték, érman eta besté batek xán eta besteák, géro bestéák, érman rémara ta béstéak xán, hala! Nik, kóri, eztákit nola egitén zen; këmendik ápal ník enuén ikúsi.

- *eta Arbayuneko arroila igaretzea, gaixto zena?*

<sup>37</sup> Era honetako 'asto'ari honako adiera ematen dio J. M. Iribarrenek, beste zenbaiten artean: 'Nombre que dan los almadieros a dos horquillas de madera clavadas en el centro de la almadiá y unidas en su parte superior por un palo, del que cuelga –metido en alforjas– el equipaje de la tripulación: la comida, una bota de vino, unos pantalones, calcetines y alpargatas'.

<sup>38</sup> Aldi honetan 'eramatene' aditza azpiulerturik dagoela iruditzen zaigu.

- Ertsí; lekúa... anítz értsi, e?

- *eta aditu du ioiz ior erori zenez edo...?*

- Nik éztut éz, èztut áitu, ez níz orítzen; báia erráten zién, gízonek, sár-tzeko, Árbayunén, égin biar ziéla ‘acto de contrición’, báitzien beldur, zér pá-satren zén, e? ta, áyek ermáten ztién bái gáuzak bay’án... kóyek drá ádinak eta lékuak, ta míntza-manérak eta eztí? pues... ayék órtzez ítzen<sup>39</sup> ztiela bé-ren orázioak, fáteko óngi... eta ník eztákit non elkitzén zren géro, Írunberrin ez...

- *bai, eta kandik Zangozara edo...?*

- Pues eztákit, bádakít erranéz baia ník ez bétut igaré, ez níz... ez níz orítzen; nòlanáiden izaník, Arbayón, ník uste dút, agéri déla, báitagón (sic)... bálkona, gálería<sup>40</sup> errátekó... góitti, góiti, Arbáyunetík sartú dénean, ta, bortua igáten báita, Isó, kán badagó... tzózo bat, arréglatrik, ta agéri da; eztúzu mirigín batré? agéri dá baia... Árbayún bi áldetarík goráztzen bétu, apála eztá agéri, ník eztút ikúsi; báia kándik ník eztakít, nórta igaretzén den baia géro, ník uste dút Zangozára elkitzen zéla, ník úste dut; segúrirík (sic) eztút erránen, ez?

### Latza aldera, sagar saltzera

- Róngarí igáre dút, ta... denbóaz faten nítzan, sagàrran sáltzra; émen ba-zén ságarr eta arán eta, dénboa kaitán ánitz; baia órai ézta ainbértze, ez. Ta faten gintzán... Ítzaltzúrik, ta igáretzen gintzán bòrtutík... Frantziako karré-terára, ez? ta àlaxé...

- *Lazarik<sup>41</sup>... Uztarrozera?*

- Lázari... bai, baia órduan etzén karréterárik, e? déna bídëa, bídëa zén; fuatén gintzan kará ta... èmaztíak, elkítzen z(r)én zárekín... txaskíak<sup>42</sup>, bá-dakizú zer dén?

- *bai.*

- Zaría ere bái? áiekin, hála!: “nik nái dut, árroba bát!”. Bèste baték: “ník arróba erdí bat; nik...”. Etzén kilórik...

- *ez; arroba...*

- Arróba<sup>43</sup>, ta llibra... ta, ála! ta, ordúan ¡hombre! ságarrak, ya ez níz ori-tzen éz baia, gú mandúekin, ta... lènbeñólen sál, sagárrak, ta, beríala saltzén gintzan (...).

- *eta kan, Latzan, nola xardokitzen zuen orrek Uztarrozeko jendearakin?*

<sup>39</sup> ‘hitz egiten’ baten zentzua dugu hor, itxuraz. ‘Itz’ hitza, dena den, ezaguna da zaraitzueraz.

<sup>40</sup> Nafarroako leku askotan gazi. ‘balcón’ delakoari ‘galería’ esaten zaionez, kasu honetan Ar-baiungo arroila ikusi ahal izateko berariaz ezarri behatokiari erreferentzia egin zion informatzaileak.

<sup>41</sup> ‘Latzarik’ ahoskatu beharko genukeen, agian, geroxeago egin bezala. Fidela Bernat uztarroza-trrak, halere, aldi batean, *pues íror, bí... óren...* Látziara, eta beste batean, *pues sierrán, Laza börtian, Lázian* erabiliz, -z- eta -tz- ahoskeren arteko zalantzak erakutsi zituen, inoiz ere haren herriaren izena ematean –Uztarroze/Uztarroze– egin zuen moduan (FLV 85, 2000).

<sup>42</sup> ‘Saski’ edota ‘jaski’ moduko hitzen aldaera hau erronkariatzat jotzen du Azkuek: Txaskí (R), cesto, *panier*. Ibar honetan, baina –Uztarrozen zehazki–, ‘zare’ aditu izan diogu beti Fidela Bernat an-dere ahaztezinari, zareok zernahi erabileratakoak izanik ere.

<sup>43</sup> Julián Rubiok 1963an argitara emaniko *Guía de Navarra-n, Unidades de peso sailaren baitan*, ze-ra dio: “Arroba, 13,392 kilogramos”, eta Iribarrenek ere berdin: “Medida de peso equivalente a 13,392 kilos”.

- Pues... érdara, eta úskara; badá... amáxar batzuk; gàztetán etzén.  
 - *zer da ‘amaxar batzuk’? ‘unas abuelicas’?*
- Pues ‘abuélicas’, bai. Gúk abuélala erran dugú, lén... bezála, baiá...  
 - *‘abuela’ errateko ‘abuela’, baina ‘abuelicas’ errateko, orduan ‘amaxar’?*
- Bai, amáxar bat, ta aitáxar bat. Geróztik èrran túgu... bésté manéra batzurétra ére, baia gúre-gùre, gúre gáztia z(r)én kála, gúre gázteenán, (zuzenduz:) gázte denbrán zén kála, amáxarrak, bai.  
 - *kortaz, uskaraz ere xardokitzen zuen emazte kaietkin?*
- Úztarrótzen? bái-bai... bai, gútti! kemén beño anítzekín gúttiago, baia bázren, bai, úskaraz [mintzo zirenak], óri nái dut érran...  
 - *eta ongi konprenditzeko moduan?*
- Bái-bai, bai; béti badúgu... éle bat edo bésté kanbiát(u)rík, eztia? bai, báia azkénéan, déna, úskara, bai. Géro bide berétil ítzul ta, kooontent sagárrak saldrík, sosá, ta... èrran dutána: a lo mejor, ordúan, kíl(l)o... sagárra, izànen zén... bí sos<sup>44</sup>, èdo... bí sós ez; nái dut érran tzákurrandiá, edo... bí tzakúrrandí edo tzakúr... írur... txipí. Oráño kontén xiten nítzan díru kae-kín... bai, kaláxet... bízia. Ta akáitzen gíntzan... bidéan, akái, ‘cansar’, ála dá?

### Orotarik zerbait

Ai! abér: izotzila, ótsalla, mártzöa, áprila, máyatza, gáragarzáröa, gárla, abuztua, úrria, àzaröá, lén abenduá ta bígarren abéndua; óri eta... kóntatzekón (sic), aurténgó urtián eztákit erran zadán bátek éni, “átze zaidán hasta... kontátzea”; “ói, éz-ez! ník kontàtren nát milá eta bi milá ta ìru míla eta... eta bátetik asirík, xúxen”. Baia, orrá, errán dauzút zénëa, orázioak, uskárazkó... orázioák? ikási nítuen, baia eztút géro práktikátu, fan nítzan ní ere, gázte, zèrbitzualá, ta zén... bai, zrèn uskaldúnak, bàya etzíen elastátzen, fini... finítu zrén bértzéak ta eztie... úmek eré ikási bátrek ere, báia (...) ník eztákit nólala átze zaizta(n).

Ta Bílbaren ègon nitzánian, en la cama, ogàtzian... ógatzéan; eta áitzen nuén... árrosarioá, ta ník, pues, zér bar dugu égin adín gaudénéan? egunóro errezzatzén dut iguál ogàtzéan, eztia? ta, ogàtzian nengonián, éztakit, Begoñatik izànen zén, arrosárioa emàten ziéla, gózian, ápezék, Begóñan úste dut zéla... uskáraz, e? eta ník, kan, guziá ermaten nuen, bayá, géro eztút errán berríz eta... fán zaida; Sànta Maríia ta... Dios te salve ta... eta guziák, eta krédoak eta guziák, bàia... átze záizta. Ta erráten dút nólala izán da kóri, bàia ezpétitut... ségitu, ez béisut ségitú eta kláro, pues... ník ámarekín ikási nítuen orázioak, bàya... géro errán daná<sup>45</sup>: fan nítzan, ní nitzán zarréna, aurrídetán, eta fán nitzán zórtzi urtétan iguál, bértze txípi batén itxíkitzekó, bértze ètxe bátean, e? eta, pues... bòrratzé(n), fán nitzan útziz eta aláxe, gáldu tút.

<sup>44</sup> Azkue: **Sos**: 1º (AN, BN, L, S), sueldo, moneda que hoy vale cinco céntimos: *sou, nom que l'on donne encore à la pièce de cinq centimes* (?). Galdera-ikur bikia Azkuerena berarenada. Beste adiera aski ezaguna ere badakar lekeitiar erraldoiak, ‘diru’ hitzaren sinonimotzat jotzen duena, alegia, baina honek ez du zerikusi zuzenik esku artean ditugun ‘sos’ hauekin.

<sup>45</sup> ‘dudana’ da hori, noskiro, behin baino gehiagotan aditzera eman dugun bezala.

Ta orái... léitzen dut e... périodikoán ta télebisiórian ta y'aítzen dút uskára, ehtiá? bayá, ya... eztút emáten... kuénta; oráño, esértzen níz telébisio nián kalaxé ta, bázurí äitzén dut<sup>46</sup> obéki, éne manérako uskára, ta bértze batzúri... ník Bilibabén enuén elastátzen iyórekin ere uskára, enóken, ez... eta San Sébastiánerékin bai. Emén izan zréñ orái duéla írur urté... irúr néska edo láur, lén urtian láur(s), ta órr eséri zién kánpaménto, ta órr igáiten<sup>47</sup> zién bízia; ta, nòla bégirondon<sup>48</sup> kémen, urrán, pues xíten zén néska kurá ta uskáraz nai zién elastátu; éuria xín zen, goitírik, ta xín zren... egóteko gú r(s)áto bátez kémen, *gúttu'at erràten dugú*, bai, *esér tzite gúttu'at*<sup>49</sup>, esértzeko, úskaran.

- 'guttu bat? zer da kori? 'pixka bat?

- *Gúttu'at*, pues 'un poco', edo *pixka bat*, bai. Ta... áyekin míntzatzen nitzán —ayék nai zién úskara! ba... bazákien bái óngi erdáraz, bát zen maéstra edo estudiátrik edo eztákit, bàia... nái zién úskara— eta... pues óngi mintzatzen gintzán, óngi, bàia Bilibalbén (sic) ní ez, ník enóken errán uskáraz<sup>50</sup>; ayék, eztákit nòla erran, nòla aítzen káyena. Bädakizú géro... mintzá-manérano, konbérssazioan.

- *orrekk aditu zuen Bilboko uskarara baia ez zen igual; mintzatzeko makur, ezta?*

- Mákur(s), mákurrágo Bizkái, Bilbábe, bai; Sán Sebastián... óbeki, óntsia, uskáran, bàia... Bilibabén ez, ta périodikóán eré bát leitzén dut, obéki entènditzén tut èzik ez bérzia. Gero bädakixú, no! leítzen dút óngi bixtán-gatik, e? bàia dáuzkit bégiak erítuxaiék<sup>51</sup> eta, gafák eztítut eséri ta akábo. Bayá, nexká, néska kayekín ánitz óngi uskáran, ta urák xín eta kóntent! xín zréñ írur urtérez, bai, eta... lemíziko úrtian izan zén kánpaméntoa ta bígarrenián ere usté dut; bàia írurgarrénian ez, eméndik, elízaréño<sup>52</sup>, orái faten zién kémendik; elízatik pásatzen bázia, apál, ètxe ándi bat yá, da, zúri... bétartez<sup>53</sup>. Kan... izan zién ogátzia; kándik xíten zréñ, ègun bátez bái, béstean éz, bídalez (sic) bái, ìrurez éz, kóna, ta kóntent! Zú orái... igáretzen

<sup>46</sup> Komunzadurak ezak maiz agertzen dira; kasu honetan, adibidez, 'dakot' itxaron beharko zen, gure ustez.

<sup>47</sup> 'Igari'tik bide datorren *igaiten* hori, gehienetan 'igare'tik izan ohi dugun 'igaretzen' hitzaren aldaera da, gure ustez.

<sup>48</sup> 'gindauden' erabili zuen behin Pedro Juan Zokok eta 'ginauden' Sebastiana Eseberriko eta Oronozko Severo Azkoitik, besteak beste. Isidora Paskualenak, berriz, 'ginaundetxun' eman zuen halako batean, xuketan.

<sup>49</sup> *u-aren* aldeko asimilazio nabaria, Zaraitzuko beste zenbait herritan ere, hitz honexekin, adi daitekeena; 'eser', bestalde, gaztelerazko 'poner' eta 'sentar', biak izan daitezke, adibide honetan azken hau.

<sup>50</sup> *erdaraz eta uskaraz* hitzak erabili zituen pasarte honetan Liboriak; hurrengo galderari erantzutean, aldiz, *uskaran*, bitan gainera.

<sup>51</sup> 'Eritxeak' izango ote da hori? 2003ko urtarilean Pedro Juan Zokori eginiko ikustaldian berari galdueta eta, guk aditu uste duguna zer den ez jakin arren, testuinguruari behatuz, gazt. 'llorosos' izan daitekeela esan zuen.

<sup>52</sup> Menturaz, orain arte ikusi denaren arabera, 'elizalartio' itxaron baldin bazitekeen ere, *elizaréño* dugu aldi honetan, muga-adlatiboa hau orobat, gutxiengoan izan arren, erabiltzen den lekuko.

<sup>53</sup> Hori gaztelerazko 'de cara' dela argitu zuen informatzaileak berak.

bázea<sup>54</sup>, elízatik, kára fan biarrián, kála, eztia? ézker; ta kórtik... fáten tzián, kárrika kúra apál, zúre betartéz bizí zrén... ayék ogátzëa... lórtzen zien (...). Bai, ta kála!

ISIDORA PASKUALENA (*Burugorri* bere etxean, 1976)

**Haurrak loarazteko edo magalean kulunkatzeko kantinelak eta kantuak<sup>55</sup>**

*Tro-tro-tro manddoko*

Tro-tro-tro, manddoko  
biar Iruñarako  
etzi Zangozarako  
kandik zer etorriko<sup>56</sup>  
pañelo (sic) bat buruko  
oraxtun<sup>57</sup> bat eriko

= TRO - TRO =

Allegretto

Tro tro manddoko, bi ar  
ko, etzi Zangoza  
ra.

<sup>54</sup> Aldaeratzat jo liteke, agian, Liboriaren hau; izan ere, saio honen aurreko ekarpenean –‘(4 - Otsagi: hasiera’ izenburukoan, alegia– eta 1-05-a zk.ari egokitirik, ‘zira’, ‘zia’ eta ‘bazia’ moduko erak baizik ez baitira agertzen, ‘zirade’ literal batetik landara.

<sup>55</sup> Jarraian ikus daitezkeen bi kantinelak –batak zein besteak bi nota baizik ez dituenak– eta ondorengo bi kantu ttikiak solfan emanik agertarazten ditugu, Javier Hernández Arsuaga musikari esker. Javier, oso adiskide ona izateaz gainera lankide ohia ere badugu eta, zer esanik ez, bihotz ezkertzen diogu Isidora andoreak gordetzen zuen altxor txiki hau pentagramara ekarri izana.

<sup>56</sup> ‘etorriko’ baino gehiago ‘ekarriko’ itxaron zitekeen, antza, ez bata ez bestea zaritzuar hitzak ez izan arren, azken honetarako ‘eraugiko/eraguiko’, ‘eraugien/eraguien’ edo... behar baikenukeen.

<sup>57</sup> ‘Eraztun’ hitzaren xumegarría dirudi horrek, e > o aldaketa gauzatu ondoren.

*Mirrix-marrax*

Mirrix-marrax	idiak edan
non egon?	idia non?
amorzianian <sup>58</sup>	arto eriten
zer eman?	artoa non?
txitxi ta papa <sup>59</sup>	olloak xan
non ene partia?	ollooa non?
graitzupean <sup>60</sup>	arroltze erruten
graitzua non?	arroltzia non?
suak erre	apezak xan
sua non?	apeza non?
urak il	meza ematen
ura non?	ta gure aurra laguntzen <sup>61</sup>

Andantino

= MIRRIX - MARRAX =

The score is handwritten in black ink on two staves. The first staff starts with a treble clef, a 'G' key signature, and a common time signature. The second staff starts with a bass clef and a common time signature. The lyrics are written in a cursive hand below the notes.

<sup>58</sup> Hots, ‘amaborzearenean’ [= ‘ama pontekoarenean’], gatz. ‘donde la madrina (de bautizo)’]. Zarrantzun ohikoa izan omen da familia berri baten baitan sortu lehen seme edo alabarentzat, honen ‘abueloak’ hautaturik izatea bataioko ‘padrino’ eta ‘madrina’tzat, era honestan gizonea, aldi berean, *aitatto* eta *aitaborze*, eta anderea *amatto* eta *amaborze* gertatzten zirela. Haurrek, hizketan hastean, *aitatto-amattrori* ‘aitaborze-am(ab)orze’ deitzen hasi eta, ondorengo haurrek, hitz hauetik aditurik, hauexek baliatu izan dituzte haietik izendatzeko, nahiz, berez, bataoirekiko referentzia izan. Pedro Juan Zokok egin zizkigun oharpen hauetik guk berariaz hari galde egini. *Aitatto* eta *amatto* hitz egokiak, bestalde, ‘aitona’ eta ‘amona’ adierarekin, noski, Eaurtan eta Espartzan bildu ditugu.

<sup>59</sup> Haur-hitzak dira: *txitxi* ‘aragi’ da, eta *papa* ‘ogi’.

<sup>60</sup> Azkuek honela zehaztu zuen: *Graitzu* (BN-s), (V. Gaitzuru): *celemín, mesure pour les grains d'un peu plus de quatre litres et demi.* Zoilo Mosok, aldiz, honela: ‘el cuartal, medida de granos: *Graitzud*’.

<sup>61</sup> Azken bi lerroak, kantatu edo errexitatu baino areago, oso era enfatizatuan eman zituen Isidorak. Josefa Zokori, ordea, honela bildu genizkion azken hiru lerroak: *apeza non? / kukulla-kukullan / meza ematen*, eta 1992an Otsagin berean ikusi genuen 88 urtetako Julia de Carlos Sanzet andereak, hiru lerro hauexek ere, honela eman zituen: *apeza non? / Sarria kukulla-kukullan / meza ematen*, guk galdeginik honako zehaztapena erantsiz: *Sárria kíkulla, Sárria dá... óyan bat; kíkulla, ja! quiere decir el alto: Sárria kíkullan... méza emáten*. Azkenik, Euskalerria Irratiak argitaraturiko *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak (II)* izenburuko lanean, *apeza non? / Ori kukulia kukulian / meza ematen* dugu bukatzeko.

*Pirlintxon*

Pirlintxon, Pirlintxon  
dantzan etxakin  
Aristu kasatzen da  
Mariarekin

Allegro

= PIRLINTXON =

pir lin txon, pir lin txon, dantz e txa rin; A ristu ka sa tren

da Ma ri a re rin.

- Bai, pues... éne... áitak, abuélo, aúrrendáko. Kemén, kemén betí... abuélo, ta... áitaborzé; áitaborzé bai, bàia... zér?

- *bàia 'aitaborzé' zer da, 'abuelo' edo 'padrino'?*

- Ziék... aítóna, ta bérze... zomáit, aítátxi, ta amátxi<sup>62</sup>, ta báizié kemén aítaborze; aítaborzé ta amórze. Ah! etzáit kéme-, emén, barríde... kontán, emázte...-tarík, xáz! ta... kúnatzían:

Bonbolon bat  
Bonbolon bi  
gure aurra ugaldiala erori  
erori bada erori  
karekin eztela egarri

Andante

= BONBOLON BAT =

bon bo lon bat bon bolon bi, gu re au rra u gal dia la e ro

ri; e ro ri ba da e ro vi ka re kin e zte la e ga

rri.

<sup>62</sup> Espartzan, arestian esan bezala, *aitátto* eta *amátto* moduko hitzak bildu genituen aspaldi (EAEL, II, 355-6), era hauexek izanik Mitxelenaren *Un vocabulario...* izeneko lanean, zaraitzueraz, ikusten ditugunak, ibarreko zein herritan bildu ziren ez badakigu ere. Gure egunotara itzuliz, duela urte gutxi *abón* eta *abóna* (!) jaso genuen Eaurtan eta, laguntzaz, baita lehenagoko bi hitzak ere; Ezkarozzen, azkenik, orain dela hogei urte pasa, *abuelo* eta *abuela*.

Bazén kostúnbre. Había una mujer que (...), pues... emázte... kórrek, kor, Felipa Kàrloséna, báitaukizu ére... zéréan<sup>63</sup>, orrék eré... zèrtu zuén, vamos, errán... kémen, èrran zuén: "hola! abuélala... Auntxáyan abuélak, áurrer... kántatzen zabexún, kúnara biltzen zuenián, kóri: *Bonbolon bat*<sup>64</sup>...".

### 'Las Mugas' deritzan festaz eta zaraitzuar jazkeraz zerbait

- *Festa kori noiz egiten da?*

- Abúztuan bederatzigarrènian...

- *eta nola<sup>65</sup> da? zer egiten die?*

- Pues... xúntatzén... txú? zérak, Frántziakó... Tárdetzekó... Átarr-, bueno, uskáraz xú... Átarratze. Átarratzé...-kó... áutoridádiak, xíten txú zériala, kórra, Éspañakó terrénöala. Eta... kémendik fáten txú (...), eta jénde ánitz, dantzáriak, keméndik, ta kándik eré... Frantziárik xíten... xú, jénde ánnitzekin yágo èzik ezér ta kán, pues... zèrtzen txú, xùntatzen txú ta papé-lak, bátak bérziarí, keméngo españólek, ta fráñzesék zértzen ditxé; vamos... bátak bérziári... erákusten ditxé<sup>66</sup>, eta... firmatzen dixé konfórme daudéla, báta bérziarekin.

Eta... géro, pues... uuuh! bázkaria... ánitz oník! bàzkariá t'oráindik es-pañólek ermáten dixé, pues... zéra, bàzkariá... ánitz, e? ta kándik, pues... ere bái, zérbait eráugitzen dixé baia españolák... kémen, Ótsagirik. Ta géro pues... buena... dánza ta... brínka! sí pues... juérga!

- *bai, eguna igare...*

- Éguna igare. Tá... altzíneko urtetán, etxíntxán... dántzariak fáten, báia... fán den... urtéan, egón txintxán dantzáriak ere, dántzatzén ta... bueno, géro telévisionián élkitzen txé.

- *eta kemengo jendea, Zaraitzuko trajecta beztiturik fáten dea?*

- Oráí ártion<sup>67</sup> ezpáizen... kémen... tráje... tráje kóri, báia... eztákit (errainari:) ¿Con el traje de... salacenco van a... a Mugas? no creo ¿verdad? no sé...

- *Eaurtako neskek badie traje polit bat eta dantzatu bitartean kantatu ere egiten die...*

- Bueno, baia uskáraz kantatzén?

- *bai, (hari, kantuz:) 'axuri beltxa ona dun baia...'; ez du izauntzen kantu kori?*

- Pues... ník e, eztákit kemén nólala... bueno, eztítut ikúsi dántzatzen; arrò-pará... banákit nólala... (zuzenduz:) bádakixut nólala den; zer? sárazenkà! zérak,

<sup>63</sup> Gure Zaraitzua aztertzeko... (1) lanaren hasieran aipaturiko zerrenda batean –*Trabajo llevado a cabo por la IKASTOLA MUSKILDAKO AMA, de Otxagabia - curso 1975-76* izenburukoan, hain zuzen–, Artxola etxeko Felipa Karlosena hau dugu otsagiar euskaldunetan gazteena, garai hartan 50 urtetan zela.

<sup>64</sup> Umore beltzko kantu honek badu, bere esanahian, nolabaiteko antzekotasuna 1980 urtean Txulapain ibarreko Urbana Aginaga andere usiarraren ahotik bildu genuen honako honekin: *Bolon pat eta bolon bi, bolon putzure erori* [bitan]; *erori bazen, erori, ezta yagokoik egeri* (sic) [bitan].

<sup>65</sup> 2003ko ikustaldian Pedro Juani galduet diogu ia, galdezteko, nola dagoen hobeki: 'nolakoa da', 'nolako da' edota 'nola da', berak azken hau hobetsiz. Halaber, nahiago du 'zertako', 'zertarako' baino, eta baita, orobat, 'zer erritan', 'zein erritan' baino.

<sup>66</sup> '(4 - Otsagi: esaldiak)' izenburuoko honen aurreko saioan esan genuen legez, komunzadurrik eza dugu esaldi honetan, 'erákusten diaztxu' –Otsagin, agian, 'dazttxu' – itxaron beharko baitzen, antza.

<sup>67</sup> 'artio' eta 'artion', biak aditu ditugu Zaraitzun elkarren lehian.

korpúxmánguak<sup>68</sup>, kemén, kórpukóxmánguak (sic), deitzén da, korpúxmán- guak, eta... záya, záya<sup>69</sup>... zérekín, ta... zér? arropá...-rá, bádakít-xut bái, bai-tá... ánitz, ník ere bá... báinxún; oráño... kóllariák, vamos, adrészök, ta...

Ník izáundu... xút, kemén... arrópa korí, béti, eztiá? baya géro fán xu-nén útziz; zómait'e... zérek, báya orái, pues... Díputazioák... emáten dixú télara, eta... ánitez, néska...-to ánitezek kan dixé<sup>70</sup> arrópa kóri ta... gízon... gízakiék, pues... rékaltzaz; el calzón se llama, en vasco, rekáltza, eta... gál-tzak, bueno, las medias gáltzak.

Ta... bérze... arrópa bát, xúk akáso ikúsi... ikúsi txú, nik... eztút, eztábe-xut bátrere, etxút ikúsi zér arrópa dién. Kastola (sic)... ègunián, gúre... mutikuá ere... beztitu xunén, arrópa kórrekin; báia... ník, ez nuén izáundu... gáz-te... -zrón<sup>71</sup> eré arrópa kori, gúre mutíkua beztitu zen... arrópara. Bái órai... akáso, orái duéla... berrégún urté, ermáten zixén arrópa kóri, órai èlki dixé.

- *libroetan eta, ikusi die nola zen eta berriz asi dira egiten...*

- Bai, pues... orái elkítzen... arrópa pues... báya... kórpuxmánguak, korí bai, ník izáundu nú... (zuzenduz:) nixú... béti; ni... gázte nintzanéan, hasta... áma... àmaxárrek, vamos, bai, zértzen... ére... ermáten zixén arrópa kori.

### Almadiez eta inguruko ibaiez zerbaite

- *Almadiak izaundu ditu kemen?*

- Bai, bai, almadía... ikúsi nuen bái nik, ugálde... idúrri dié... ugálde... kuék, bi... ugálde... kuék, txíkin... drelá? ta, keméndik eré eràusten zién! lotzén ztien... almàdiák, emén... zérían, Botikarioan, Botikarioán etxé altzí-nian; pues... kán lotzé ztitxién almadíak eta géro pues... úgaldia barná! ta... Arbayónekó... púzualártion, ánitz ongí baia kán ánitz... beldur!

- *gaxto zen?*

- Áníz gaixtó! iltzén zen, itótzen zén ánitz; pues... erórtzen zéna... putzuá-la (...) ta géro, a lo mejor, zér? igáretzen zún pues... égun ánitz; ugaldia báze-gón andí etzréni atrébitzen sártzra ta... kán, ta... erpétzen<sup>72</sup> ztién nóizbait.

- *almadiak zonbat tramo zuen?*

- Aaah! ník e... eztákixut kóri.

- *laur edo borz edo... bai?*

- Bai, bai, bai...

- *eta altzinean zonbat gizon faten zen? bat? bida?*

- Altzínéan... bát eta giblian berzé bat, idúri... (t)záida, báia... arabéz zértzen zréen. Zér e... Kálleeez (sic)... báilletik diágó, almàdia diágó soustén zen èzik keméndik; Kallés balletik ánitz! kan, òyan... diágó, eta... úgaldiák eré... ándiago; Burgírik igaretzén den... ugálde kurá, da askí andí, e?

- *bai, kan badie zubi andi bat anitz polit... ikusi du orrek? egon da Bur-gin?*

<sup>68</sup> Honen aurreko entregan aditzerako eman genuenez, *korpuxmanguak* besorik gabeko soineko bordatu bat da, gorputz erditik gorakoa. *Txitkin kori faten dá beztitrik kórpuxmánguarekin* eman zigun Pedro Juan Zokok 2003ko urtarrilean.

<sup>69</sup> Azkuek honela dio: *Zaia* (AN, BN, L, S), saya: *robe, jupe* (?). Galdera-ikurra Azkuerena bera-rena da.

<sup>70</sup> *kuanixé* aditzen dela iruditzen zaigu.

<sup>71</sup> ‘gaztezaroan’ izan daiteke hori, itxura guztiaren arabera.

<sup>72</sup> ‘Arrepatzen’ → ‘ar(re)petzen’ → ‘erpetzen’ gisako edo antzeko garapena dugu hor, itxura denez.

- Bai! Burgín?... tía bat izán... ílik dágó.
  - *orren tia bat? uskara bazakien?*
- Bai, bai, bai, émengoa zén, ène... ène aitán... árreba; émengo, ène aitán árreba.
  - *eta ori ebili da Izaban eta Kalles balle guzian?*
  - Ni? ez, eníz égon; Izában, Úztarrozén... áldi batez, báya... eztút, eztút déus esplikatre(n). Báya... Burgín bai, ugálde... májo át, andí, ta géro xúntatzén... apàlagó, bérze ugálde batekín; ugálde koriék elkítzen... dá, (zuzenduz:) txu, Zangozán xuntatzen drá... Zangozán, Záraitzú... ugaldéarekín, en castellano 'el río Salazar', hasta... Sangüesa, Zangozarartión... zer? ugálde káu, Záraitzu...
    - ...da, *eta Zangozan xuntatzen da Ezkarekin...*
    - Ez-, Èskarekín? ta dèitzén dié...
      - ... *Aragon; kortik altzina Aragon, ez dea?*
    - Ugaldia Aragón; eta Irùnberrín? Irùnbe...rrín, Zaraitzuarekín, xuntatzen dá, ugálde... Iráti, ugáldekin, Irátkin. Klaró, Irá... ugálde Iratéa<sup>73</sup> sòrtzen dá... Irátko... Óri péan ta Frántzia... kortík, berzé... ugálde bát...
      - *Abodin barrena eta, xiten da kona, ezta?*
    - Bai, xíten drá, xurrutatzen<sup>74</sup> drá pues... ugálde... txíkin ánitz, ta yá...
      - *Zatoia eta...*
    - Bai, igàretzen dá pues, ugálde... Iráti... ugaldiá? Aézkoa bálle guzítik; eta xúntatzen dá... pues, zéra, Agóitzerik eré, igaretzen dá... ugálde... Irátrik... ugaldiá. Ta, pues... Agóitzen... bai, yá áski andí, kor... len... zúra eràusten zién, eràusten zixén... ugaldiáz, Agóitzeràrtio; ta Agóitzen pues... kán bültzen zixén, ta... pues e zérían, ugálde... Irùnberrí, Irùnberrín xuntatzen dá... zérarekín, Zéreltzu<sup>75</sup>... ugaldíarekín.

SEBASTIANA ESEBERRI (*Osaba* bere etxean, 1976-77)

#### Muskildako Ama Birjinaren inguruko ospakizunak

- *Noiz dira kemengo festak?*
- Urrian, zórtzi... zórtzia, bai.
  - *zer da? Ama Birjina Muskildakoa?*
- Amá Berjína egúna, bai.
  - *eta zer egiten du jendeak?*
  - Eeh! zér egiten duén jéndiak? pues egún kortán, déus ere, faten drá Muskildara, kan... bueno, góizian... dá mayordòmoa<sup>76</sup> (...) pues, egún kortan, dá mayordòmoa, ermàten baititú kóntuak, Muskildakó kóntuak, eta

<sup>73</sup> Ikusgarria, agian, Isidorak 'ugalde' hitza inoiz ibaiaren berezko izenaren ezker aldera eraman iza-na, beti horrela jokatu ez zuen arren.

<sup>74</sup> Azkue: *Zürrüta* (S, Chah, ms), arroyo, ruisseau.

<sup>75</sup> Hona lehenxeago Isidorak berak erabili *Záraitzu* izenaren aldaera bakana. Garralda aitaseme otsagiarrek idatzi artikuluetan, ordea, *Sarasaitzu* aurkitzen dugu beti, eta gure egunotara itzuliz, Josefa Zokok *Zárazaltzra* (= 'Záraitzura') erabili zuen behin, bitxi bada ere.

<sup>76</sup> Iribarrenek honela dio: MAYORDOMO. Los *mayordomos* son los encargados de administrar los gastos de las fiestas patronales o *mezetas* y de hacer los honores mientras ellas duran. Abren baile público, bailando con las mayordomas. Son elegidos cada año por los anteriores, con la aprobación del pueblo. En algunas localidades, la elección se efectúa ofreciendo el mayordomo saliente al nuevo un vaso de vino, cuya aceptación es señal de que admite el cargo. [Pamplona, Cuenca, Montaña, Zona Media].

etsé kortan emáten dabé desàinatzrá, Ayúntamentuarí eta (...), dántzariak, desínatzra, eta emáten dié dántzariék buélta bat, ériari, góizián... deséinatzeko.

Ta géro fáten drá Múskildara, eta améketán izàten dá... méza, emáten dié méza... Múskildàn; fáten drá ta géro, dántzari kóyek, báitra Ama Bérjina Múskildákök –dántzariak drá Ama Bérjina Múskildakök–, dántzari kóyek... áskaltzen dié bérriz kán, kostilla xáten dié, askáltzen dié kán, eta géro, dántzatzen dra, kan, eta geró mézara.

Ta géro saúnsten drá, orón batekó kóna; kán ameketán mézara, e? ta géro saúnsten drá orón batéko kóna, eta fáten drá... frontón... ;cómo se dice en vasco? lén frontóna baño... ¡vete y búscal! bueno, fáten drá eta... dántzatzen drá... frontón... (irrifarrez, erdi lotsaturik edo, ‘frontón’ hitza euskaraz ezin asmatuz)

- *frontonean?*

- Frontónen! mal está, pero no es así, no; eta kán dántzatzen drá...

- *eta jende anitz biltzen da?*

- Bai, jénde ánitz, fáten dá jénde ánitz...

- *‘altzinean?’ ‘urrean?’... ‘delante de mucha gente’ nola erraten da?*

